

Lontxo Oihartzabal jn.
Juan Carlos Arraibi jn.
Gaizka Gabantxo jn.
Miren Izagirre and.
José Ramón Kortabitarte jn.
Gonzalo Larruzea jn.
Tomás Ordeñana jn.
Raimundo Rubio jn.
Manu Udaondo jn.

04/01 IRIZPENA

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2003ko martxoaren 22ko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: Lanbide Heziketako zentro integratuak sortzen eta arautzen dituen dekretu proiektuari buruz.

Eva Blanco and.
Idazkari teknikoa

SARRERA:

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Euskadiko Eskola Kontseiluari aurkeztu dio Lanbide Heziketako zentro integratuak sortzen eta arautzen dituen dekretu proiektua, ahalik eta azkarren eman dezan kasuan kasuko aginduzko txostena.

Era berean, Lanbide Heziketako zuzendariaren memoria ere bidali da.

I.- AURREKARIAK:

Ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoaren helburuak ondokoak dira: lanbide heziketaren, kualifikazioen eta egiaztapenen sistema integrala antolatzea, gizarte eta ekonomi eskaerei eraginkortasunez eta gardentasunez erantzuteko, hezkuntza modalitate desberdinen bidez.

Lanbide Heziketako Euskal Plana garatzeko lanbide heziketa irakasten duen ikastetxe kopuru jakin bat behar da, eta Lanbide Heziketako Sistema Integratuaren oinarriko eginkizunak bermatze aldera, gutxienezko egitura segurtatzeko behar adinako munta izan behar dute. Ikastetxe hauek behar bezain malgu eta moldakorrak izan behar dute, kualifikazioa gehitzeko eta eguneratzeko programa guztiei eusteko eta hartzaile guztien eskura jartzeko moduan, bai beren kokapen geografikoagatik eta bai barne egituraketagatik ere.

5/2002 Lege Organikoak bere 11. kapituluaren, 4. atalean, zehazten duenez, Lanbide Heziketako zentro integratuak izango dira Lege Organiko honen 10.1 artikuluan aipatzen diren prestakuntza eskaintzak irakasten dituztenak. 5. atalean jasotzen denez, hezkuntza administrazioen titulartasuneko Lanbide Heziketako zentro integratuak zuzendaritza, Administrazio eskudunak libreki izendatuko du funtzionario publiko diren irakasleen artetik, merezimendu, gaitasun eta publikotasun printzipioen arabera, ikastetxeko kide anitzeko organoei kontsultatu ondoren. 6. atalak zehazten duenez, Autonomia Erkidegoek Lanbide Heziketako zentro integratuen osaera eta eginkizunak beren ezaugarri berezietara egokituko dituzte.

Beste alde batetik, abenduaren 23ko 10/2002 Lege Organikoak, Hezkuntzaren Kalitatearenak, VI. Kapituluaren, V. Tituluaren, ikastetxe publikoetako Zuzendariaren aukeraketari heltzen dio, eta berriazko tratamendu bat zehazten du, bereziki, Lanbide Heziketako zentro integratuak zuzendaritzaren selekzioa eta izendapena egiteko prozedurari dagokionez. Halatan, bada, hamalaugarren xedapen gehigarriak finkatzen duenez, zentro integratuak zuzendaritzaren izendapena, ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoak, Kualifikazioen eta Lanbide Heziketarenak, 11.5 artikuluan zehaztutakoaren arabera egingo da.

II.- EDUKIA:

Dekretu proiektu honek 7 artikulua eta azken xedapen bi ditu.

1. artikulua zehazten duenez, dekretuaren xedea EAeko Lanbide Heziketako zentro integratuak sortu eta araupetzea da.

2. artikulua honela definitzen du Lanbide Heziketako zentro integratuaren figura: ikastetxe bat da, publikoa zein itunpekoa, Berriazko LH, Etengabeko lanbide prestakuntza eta Lanerako lanbide prestakuntza eskaintzen dituen, Hezkuntza Sailak finkatzen dituen baldintzak betetzen dituen eta, pertsonen kualifikazio beharrei zein ekoizpen ingurunearen edo eta administrazioaren beharrei erantzuteko, kudeaketa, antolamendu, funtzionamendu eta finantzazio bereziak behar dituen.

3. artikulua Lanbide Heziketako zentro integratu batek garatu behar izango dituen eginkizunak finkatzen ditu eta 4. artikulua zentro hauek bete behar izango dituzten gutxienezko baldintzak zehazten ditu.

5. artikulua Lanbide Heziketako zentro integratuen partaidetza eta gobernu organoak araupetzen ditu:

- 1. atalak gobernu organoak zehazten ditu, eta beraien eskumenak finkatzen ditu: Ikastetxeko Zuzendaria, Ikasketak-burua, Idazkaria, Kudeaketa Integral eta Estrategia Arloko Zuzendaria, Ekonomia eta Administrazio Arloko Zuzendaria.

- 2. atalak partaidetza organoak zehazten ditu eta berauen eskurantzak finkatzen ditu: Eskola Kontseilua, Aholkularitza Kontseilu Teknikoa, Klaustroa eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak zehaztuko dituen guztiak.

6. artikulua xedatzen duenez, Lanbide Heziketako zentro integratuek bermaturik dute pedagogia, antolamendu eta kudeaketa autonomia, indarrean dagoen legeriaren esparruan. Halaber, autonomia hau gutxienez nolako eremuetan garatuko den ere jaso egiten da.

7. artikulua zuzendaria hautatu eta izendatzeko prozedura zehazten du.

Lehenengo azken xedapenak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari eskumena ematen dio dekretua garatzeko behar diren xedapenak emateko, eta bigarrenak, berriz, dekretua indarrean noiz sartzen den zehazten du.

III.- BALORAZIO ETA PROPOSAMENAK

Euskadiko Eskola Kontseiluko Batzorde Iraunkorrak ongi deritzo dekretu hau egiteari, lanbide heziketaren azpi-sistemak integratzeko prozesuan garrantzi handikoak izango diren honelako zentroak arautzeko gaiari heldu baitio.

Hala ere, honako iritzi hauek ere eman nahi ditu dekretu proiektuaren artikuluei buruz:

- **4. artikuluan** jasotzen denez, dekretu honek arautzen dituen zentroeiei dagokienez, *“Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak zentro hauek bete behar izango dituzten gutxienezko baldintzak zehaztuko ditu”*.

Gure iritzian, gutxienezko baldintzak dekretu honetan bertan ezarri behar lirarteke, eta esperientzia praktikoak hala eskatuko balu, beharrezkoak gerta litezkeen beste baldintza eta aldaketa batzuk geroagoko balizko zehaztapenatarako utzi. Kontua “Lanbide Heziketako zentro integratuak” sortzea bada (1. art.), antolamenduak gutxienezko baldintzak hasieratik finkatzea eskatzen du, izan ere, horrexegatik baitira gutxienezko.

Beste alde batetik, c) atalari dagokionez, “EFQM kalitate eredu europarra erreferentetzat izango duen kalitate sistema normalizatua”, gure iritzian deterministegia da eta kalitatea kudeatzeko bete bi eredu daude kontuan hartzea mereziko luketenak.

- **5. artikulua**ren formulazioari dagokionez, gure iritzian aldatu beharko litzateke zentroaren organoak agertzen diren hurrenkera: lehenbizi gobernu organoak, eta

ondotik partaidetza organoak, dekretuaren testuak ondoren egiten duen garapenarekin bat etortzeko.

5.1 artikuluan, zentroaren gobernu organo bakoitzaren eskumenak zehazten dira xehetasun aski emanda.

5.1.2.c) atalean, Ikasketa-buruaren eskumenen gainean, okerreko erreferentzia bat dago EEPLaren 34.2.f artikuluari buruz, izan ere, 36.2.f izan behar luke.

5.1.5.d) atalean, kudeaketa arloko Zuzendariaren eskumenen gainean, 1.2.d atalarekin bat etortzeko, “*Zentroko Berrikuntza Proiektuez ardurara izango du*” dioen lekuaren ondotik honako hau erantsi beharko litzaioke: “...*Ikasketa-buruarekin koordinaturik.*”

5.2 artikuluan, partaidetza organoen eginkizunak zehaztu nahi dira. Ikastetxeko Eskola Kontseiluari eta Irakasleen Klaustroari dagokienez, eginkizunak zehaztuta gelditzen dira, Hezkuntzaren Kalitateari buruzko 10/2002 Legeak xedatzen duenaz baliaturik. Aholkularitza Kontseilu Teknikoa aipatzerakoan, berriz, geroagoko xedapenentarako uzten da dena. Gure iritzian ezin egin daiteke gutxienezko balorazio bat partaidetza organo berri honi buruz, haren egitekoak zeintzuk izango diren eta haren oinarrizko osaeran nor parte hartu ahal izango lukeen ez dakigularik. Gure aburuz, testu honetan zehaztu beharko litzateke zein den organo hau sortzeko xedea.

5.2.1. atalaren amaieran, legeari buruzko ondoko xehetasun hau eranstea proposatzen dugu: “... eta 56.a eta 57.a Hezkuntza Eskubide Arautzen duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoarenak. (*azaroaren 20ko 9/1995 L.O.aren Lehenengo azken xedapenaren 4.ak eta 5.ak eta abenduaren 23ko 10/2002 L.O.aren lehenengo azken xedapenaren 4.ak eta 5.ak aldatutako artikuluek*).

- **6. artikuluari** dagokionez, gure iritzian egokia litzateke klausula bat sartzea Lanbide Heziketako zentro integratuei ematen zaien autonomia aldiari aldiko lege xedapenek ezarriko duten gizarte kontrolaren menpe daudela zehaztuko duena, zeren eta zenbat eta autonomia handiagoa izan orduan eta gizarte eragileek zaintza kontrol handiagoa egin behar baitute.
- **7.etik 10.era bitarteko artikuluek** Lanbide Heziketako zentro integratuko zuzendaria hautatzeko oinarrizko prozesua arautzen dute.

Kontseilu honen ustean, artikuluek bertan behera utzi behar lirateke, zeren eta hauteskunde orokorren ondorengo egoerak panorama berria sortu baitu eta agidanez honek ondorioak izango baititu hezkuntzako administrazioaren eremuan eta halaber erregulazio hau geroago garatzekotan utz litekeelako maila apalagoko araudi gisa.

Irizpenerako aurkeztutako testuaren proposamenari bere horretan eutsi nahi izanez gero, beharrezko deritzogu ondoko iritzi hauek azaltzeari:

- Aipatutako 7. artikulua, 1.b puntuan, zehazten duenez, hautaketa merezimendu, gaitasun eta publikotasun printzipioen arabera egingo da, eta hautaketa eta izendapena libreak izango dira (7.1.a art.). On litzateke aztertzea zein neurritan ez diren kontrajarriak a eta b ataletan xedatutakoak.
- Azterketa xeheagoa egiten hasita, baldintzen artean, hautagaiak hirurteko Plan Estrategiko bat aurkeztu behar duela xedatzen da, besteak beste.

Gure ustean, nekez bete daiteke publikotasun printzipioa baldin eta hautaketa batzordea administrazioak izendatutako pertsonak bakarrik osatzen badute. Gure iritzian, hezkuntzako administrazioaz bestelako estamenturen batek ordezkaritza izan behar luke batzorde horretan, hautaketaren publikotasuna behar adinakoa izan dadin bermatze aldera. Gure aburuz orobat, Ikastetxeak berak ere ordezkaritza izan beharko luke hautaketa batzordean, zeren eta finean kontua ikastetxea bera gobernatzea baita. Halaber aztertu liteke komeni ote den ikastetxeko ordezkariaren botoarentzat gutxienezko pisu espezifiko bat finkatzea (%40?), aukeraturako hautagaiak ikastetxeko taldeko gehiengoaren errefusa izan ez dezan bermatze aldera.

Beste alde batetik, hautagaiaren balorazioa egiteko kontuan hartzekoak diren merezimenduak zehazterakoan, ez da aipatzen aurkeztu behar zuen Plan Estrategikoa. Ez du zentzurik baldintzen artean halako plana aurkezteko eskatu eta hautagaiaren merezimenduen eta gaitasunen balorazioa egiterakoan hura kontuan ez hartzeak. Gure iritzian, hirurteko Plan Estrategikoaren balorazioak kontuan hartu beharreko aldetariko bat izan behar du, zeren eta bestela, egokitu zaion zuzendari-aldia amaituta, ezin egin bailiteke baloraziorik hark ikastetxeko zuzendari gisa egindako kudeaketari buruz.

- 2. artikuluan 3 b) atalean Ordezkaritza Organo Gorena aipatzen da, eta 5.2 artikuluan, berriz, Eskola Kontseilua aipatzen da partaidetza organo bezala. Izena batu beharko litzatekeela deritzogu.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratu da.

Bilbon, 2004ko martxoaren 23an
IDAZKARI TEKNIKOA,

Iz.: Eva Blanco Ochoa

Ikus-onetsia

LEHENDAKARIA,

Fdo. : Lontxo Oihartzabal

EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA
SAILBURUA.

Vitoria - Gasteiz